



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

OINARRI ESPEZIFIKOAK, ARABAKO KALKULUGUNEA SA FORU SOZIETATE PUBLIKOAN BI PROGRAMATZAILE (PROFILA: OROKORRA) LANPOSTU BETETZEKO LANGILE LAN KONTRATUDUNEN HAUTAKETA ARAUTZEN DUTENAK

(deialdiaren kodea: 2022009)

LEHENENGO OINARRIA.- LANPOSTUAREN OINARRIZKO EGINKIZUNAK:

Informazio Sistemaren Alorrean integratuko da, proiektuaren burutzaren eta, aldi berean, alorreko arduradunaren mendekoan.

Honako funtzio hauek beteko dituzte:

- Hainbat programazio hizkuntzatan kodea eraginkortasunez garatzea.
- Dauden programak eguneratzea eta zabaltzea.
- Programak araztea, hau da, akatsak bilatzea eta konpontzea, garatze edo mantentze lanak eta probak egin bitartean softwarea normaltasunez ibiliko dela bermatzeko.
- Aplikazioaren edo sistemaren alderdi guztiak dokumentatzea, programazioaren ikuspegitik, etorkizuneko eguneratzeetarako edo mantentze lanetarako erreferentzia gisa.
- Erabiltzen den metodologiaren arabera, erabiltzaileen beharrak aztertzen laguntzea.

BIGARREN OINARRIA.- ESKAERAK AURKEZTEA:

Izangaiek posta elektronikoz 2022009@qualisconsultores.es helbidera bidali beharko dituzte oinarri orokorren 3.1) puntuan eskatzen diren agiriak (bidali beharreko mezuak 30 MB baino gehiago baditu, hainbat mezu bidali beharko dira, onartutako muga gainditu gabe haietako batean ere).

Eskaerak aurkezteko epea 2023ko urtarrilaren 23an amaituko da.

HIRUGARREN OINARRIA.- ESKATUTAKO TITULAZIOA:



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

- Informatikako edo Ingeniaritzako lizentzia, edo gradu baliokidea, unibertsitate ikasketetako “Ingeniaritza eta Arkitektura” edo “Zientziak” ezagutza adarretakoa.

LAUGARREN OINARRIA.- HAUTAKETA PROZESUAREN DISEINUA ETA PROBEN BALIOESPENA:

Ariketak edo probak deialdi bakarreko sistemaren arabera eginez gero, edo hautagaiak bertaratzea eskatzen duten beste ekintza batzuk izanez gero, haurdunaldia, erditzea edo edoskitzea, behar bezala egiaztatuta, arrazoi izan daitezke ekitaldia egiteko denboraren eta/edo lekuaren inguruabarrak aldatzea justifikatzeko.

Aldaketa eskaerei erantzuteak berekin ekarriko du hautagai guztien lehia berdintasunaren printzipioa bermatzeko beharrezkoak eta egokiak diren antolaketa neurriak ezartzea.

1. FASEA: EZAGUTZA ESPEZIFIKOAK EBALUATZEA:

Nahitaezkoa eta baztertzaileria izango da (GAI – EZ GAI).

- Teknologia hauetakoren bat: Java, JavaScript, Angular programazioa.
- Metodologiak: SCRUM edo bizkor motako beste batzuk.

Zinpeko adierazpen bidez egiaztatzea goian adierazitako jakintza espezifikoak dituela.

Alegatutako merezimendu guztiak eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean eduki beharko dira, eta lan kontratua formalizatzen den unera arte mantendu beharko dira.

2. FASEA: MEREZIMENDUEN BALORAZIOA (30 puntu, gehienez):

A) Titulazioak (10 puntu, gehienez):

- Lizentzia Informatikan edo Ingeniaritzan, edo gradu baliokidea: 10 puntu
- Beste lizentzia, ingeniari-tza edo gradu batzuk, informatikarekin lotutako espezialitateetakoak: 5 puntu
- Gainerako lizentziak, ingeniari-tzak edo graduak: 0 puntu

B) Hizkuntzak (4 puntu, gehienez):

B.1) Hizkuntza: euskara (2 puntu, gehienez ere):

- Titulu ofizialaren bidez egiaztatu beharko da.





Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

- Ez da egingo hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko azterketarik.
- Honela balioetsiko da:
 - B1: **0,5 puntu.**
 - B2: **1 puntu.**
 - C1: **1,5 puntu.**
 - C2: **2 puntu.**
- Titulu ofizial bi edo gehiago izanez gero, maila altuenekoa bakarrik balioetsiko da.

B.2) Hizkuntza: Ingelesa (gehienez 2 puntu):

- Titulu ofizialaren bidez egiaztatu beharko da.
- Ez da egingo hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko azterketarik.
- Honela balioetsiko da:
 - B1: **0,5 puntu.**
 - B2: **1 puntu.**
 - C1: **1,5 puntu.**
 - C2: **2 puntu.**
- Titulu ofizial bi edo gehiago izanez gero, maila altuenekoa bakarrik balioetsiko da.

C) Esperientzia (gehienez 16 puntu):

- CV, curriculum memoria eta lan bizitzaren txosten eguneratuaren bidezko egiaztapena.





Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

R.M. ALAVA: Tomo 387 del Libro de Sociedades 294- Sección 3 Folio 11 – Hoja 3379 – Inscripción 1 C.I.F. A-01052539

2 urtetik gorako esperientzia azken 4 urteetan lehenengo oinarrian deskribatutako eginkizunak dituzten lanpostuetan.	<ul style="list-style-type: none">- Oso ondo betetzen du: 16 puntu.- Nahiko ondo betetzen du: 12 puntu.- Ondo betetzen du: 8 puntu.- Ez du ondo betetzen eta hobetu beharreko alorren bat dauka: 4 puntu.- Ez du ondo betetzen eta hobetu beharreko nahiko alor dauzka: 0 puntu.
Urtebete baino gehiagoko esperientzia azken 4 urteetan lehenengo oinarrian deskribatutako eginkizunak dituzten lanpostuetan, sektore publikoko erakunderen batek zuzenean kontratatuta.	<ul style="list-style-type: none">- Oso ondo betetzen du: 16 puntu.- Nahiko ondo betetzen du: 12 puntu.- Ondo betetzen du: 8 puntu.- Ez du ondo betetzen eta hobetu beharreko alorren bat dauka: 4 puntu.- Ez du ondo betetzen eta hobetu beharreko nahiko alor dauzka: 0 puntu.

Balorazioa egiteko:

Honako balorazio hau emango da...	...baldin eta lehenengo oinarrian deskribatutako eginkizunen ehuneko hau modu frogagarrian islatzen bada:
Oso ondo betetzen du	100
Nahiko ondo betetzen du	> % 66 eta < % 100
Ondo betetzen du	> % 33 eta < = % 66
Ez du ondo betetzen eta hobetu beharreko alorren bat dauka	> % 0 eta < = % 33
Ez du ondo betetzen eta hobetu beharreko nahiko alor dauzka	% 0

Alegatutako merezimendu guztiak eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean eduki beharko dira, eta lan kontratua formalizatzen den unera arte mantendu beharko dira.

Merezimenduen baremoetan, lanbide esperientziaren ondorioetarako, honako hauek balioetsiko dira: hautagaiak ahaideak zaintzeko edo genero indarkeriagatik eszedentzian



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

egon diren denbora; amatasuna eta aitatasuna babesteko edo erantzukizuna partekatuz norberaren bizitza, familia eta lana bateragarri egiten laguntzeko xedea duten lanaldi murrizketei edo baimenei egotzi ahal zaien denbora, eta emakume enplegatu publikoek genero indarkeriagatik baimenak erabili dituzten denbora.

3. FASEA: LANPOSTUAREN PROFILERA EGOKITZEAREN INGURUKO ARIKETA PSIKOMETRIKOA

- **Nahitaezkoa eta baztertzaila** izango da (**GAI – EZ GAI**).
- Probak egingo zaizkie 1. fasean gaitzat jo diren eta 2. faseko emaitza orokorrean puntuaziorik onenak lortu dituzten sei pertsoneri.
- Izangaiek proba bat edo proba batzuk egin beharko dituzte lanpostuarekiko eta gauzatu beharreko eginkizunekiko egokitasuna balioesteko xedez.
- Qualis Consultores de Talento SLk txosten osatu bat igorriko du 4. faserako proposatutako hautagai bakoitzaren inguruan.
- Gaitzat jotzen diren hautagaiek aurrez aurreko elkarrizketa egin beharko dute AKSAn, hautaketa prozesu honetarako eratu den hautaketa epaimahaiko kideen aurrean.
- Inor EZ GAI gertatzekotan, probak egingo zaizkie hurrengo puntuazio onenak dituzten pertsoneri, eta hurrengo fasera (4. fasera) pasatuko dira gaitzat jo eta sei puntuazio onenak dituztenak.

4. FASEA: GAITASUN ELKARRIZKETA ETA ELKARRIZKETA TEKNIKOA (geh. 20 puntu)

- **Nahitaezkoa** da.
- 2. faseko emaitza orokorrean puntuaziorik onenak lortu dituzten sei pertsoneri eta 3. fasean gaitzat jo direnei egingo zaie elkarrizketa pertsonala.
- Elkarrizketa hautaketa epaimahaiko kideek egingo dute AKSA sozietatearen egoitzan, eta ardatz izango ditu lanpostuko gaitasun orokorrak, zeharkakoak eta teknikoak.
- Elkarrizketak bi zati ditu:
 - **Gaitasunena:** Elkarrizketa honetan honako gaitasun hauek balioetsiko dira: (gehienez 15 puntu)
 - Komunikazio gaitasuna.
 - Errendimendu handiko talde lana.
 - Antolamendua eta emaitzetarako orientazio aurreratua
 - Autonomia eta ekimena.
 - Bezeroarentzako oinarritzko orientazioa.



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

Fase honetako puntuazioa izango da eskala honen arabera aztertutako gaitasunetako bakoitzean lortutako puntuazioen batura:

- Gaitasunik ez: 0 puntu
- Hobetu beharreko alorrak ditu argi eta garbi: 0,75 puntu
- Gaitasuna garatzeko fasean: 1,5 puntu
- Gaitasun maila aurreratua: 2,25 puntu
- Gaitasun maila bikaina: 3 puntu

- **Teknikoa:** Ezaupideak: (5 puntu, gehienez)
 - Teknologiak: Java, JavaScript, Angular programazioa.
 - Metodologiak: SCRUM edo bizkor motako beste batzuk.

- Elkarrizketa pertsonala amaitutakoan, akta jaso eta izenpetuko da, eta bertan, hautaketako epaimahaikide guztiek emandako puntuazioak agertuko dira.
- Sei hautagaietako batek gutxienez 7,5 puntu lortzen ez baditu gaitasun zatia balioestean elkarrizketan, eta 2,5 puntu alderdi teknikoa balioestean elkarrizketan, hautaketa prozesutik kanpo geratuko da, eta gainerako pertsonak jarraituko dute.
- Hautaketa prozesu hau amaitu ondoren gai diren pertsonak sei baino gutxiago badira, hautaketa epaimahaiak, hurrengo hautagaira edo hautagaietara jo ahalko du, gai diren gutxienez sei hautagai izan arte.

FASE BAKOITZEKO PUNTUAZIOEN LABURPENA:

1 FASEA	2 FASEA	3 FASE	4 FASE	GUZTIRA
E/A	30	E/A	20	50